



LIBURUA

Ispiluaren aurrean



SOFIA PETROVNA
LIDIA TXUKOVSKAIA
 (ITZULTZAILEA: JOSU ZABALETA)

KATAKRAK, 2019

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Sistematikoki torturatzen duena; metodikoki egiturazko kriminalizazioak betikitzen dituena; etenik gabeko bortxa orokortua iraunarazten duena; atxiloketa aleatorio bidegabeak inpunitatez arautzen dituena. Horixe da, deskuiduan, *Sofia Petrovna* eleberririk ispiluaren aurrean jarri didan espainiar estatua; eta –estatu bakarrean gelditzeko beharrik gabe– baita mendealde demokratiko sakrosantuaren gehiengo zabala ere.

Ez dakit zer espero nuen, baina bai: ispiluaren aurrean mantentzen du irakurlea Lidia Txukovskaiaren nobelak kristalaren bestaldera bi begiak iltzaturik. Eta efektu hori lortzen du kokatuta egonik ere Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuneko Purga Handiaren garaian.

Esango nuke, estetikari zor diola lorpen literarioa, hau da, narrazioaren testu-gurua gainditu, eta irakurlearen egunerokotasunaz gogoeta eginaraztea. Bi hitz beraz arreta ebatsi didan estetikaz.

Miren Agur Meaberen azken eleberriko narratzaileak aipatzen du mirestea zaiola Simone de Beauvoirren prosa. Amaren heriotza bezalako bizipen artegagarriaz hitz egin arren, “prosa soil eta sentimentalismoz bustigabea” darabilen dio. Iruditzen zait Beauvoirrekin bat egiten duela, Meabek bezala, Txukovskaiak berak ere, bortxaz hitz egiten duen prosaren soiltasun horretan.

Bigarren kontsiderazioak David Foster Wallacengana narama. *Hau ura* da graduazio hitzaldi sonatua ekarri zuen Danele Sarriugartek euskarara. Urez in-

guratuta bizi direla ohartzen ez diren arrainen parabolak balio izan zion Wallaceri *suburbia* amerikarra populatuko zuten gazte unibertsitarioen pentsamoldea astintzen saiatzeko. Bortxa begien bistakoenak ikusteko zailtasunak eta horiek ukatzeko ziurtasunitsuak gure buruen preso egiten gaituztela gogoeztatzen zuen idazle amerikarrak. Sofia Petrovna antzeko lana egiten du.

Sentimentalismo gabeko deskribapenek arrakala irekitzen dute protagonistak sumatu ezin eta irakurleak ezin argiago ikusten duen bortxaren artean. Arrakala horrek darama irakurlea norberak ikusten ez duen hausnartzera. Eta gure kasuan zer da “ura” egiturazko estatu bortxa orokortu eta sistematikoa ez bada. ●